

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure produktua ekoizteko hainbat osagai beharko ditugu. Pastilla kaxa elektronikoa denez guk ekoiztuko dugu. Alde batetik, pastila kaxa bat, bozeragailu bat mikrofono batekin integratuta eta pantaila bat eta pantaila eusteko gailua behar izango dugu. Osagai guzti hauek **Alibaba webgunean** erosiko ditugu. Hasieran, ez ditugu osagaien kantitate handiak erosiko, eta gure enpresa garatu ahala, ikusiko dugu kantitate handiagoa erosi behar dugun edo ez.




Pantaila



Pantaila eusten duen gailua



Bozeragailua



Pastilla kaxa

Pastilla kaxa ekoiztu eta gero, eskaera bakoitzaren paketea sortu beharko dugu. Horretarako bilgarriak **embalando.es** webgunean erosiko ditugu. Kartoizko kaxak, enbalaje-zintak, burbulen plastikoa... erosiko dugu.



Correos enpresarekin adostuko dugu garraioa. Gure produktu programatu ondoren, bezero bakoitzaren etxera bidali behar dugu, eta horretarako, Correos enpresa lagunduko digu. Bidalketa bakoitza 5 € gutxi gora behera kostatuko du.

Pastilla kaxaren programazioa, aplikazio baten arabera funtzionatuko du. Ondorioz, aplikazioak sortzen dituen enpresa batekin harremanetan jarriko gara. **Appyweb** enpresarekin garatuko dugu gure aplikazioa. Appyweb ibilbide luzeko app-ak garatzen dituen enpresa bat da, mota guztietako app-ak garatu dituzte hainbat sektoretan.



Gure produktua bi leku desberdinetan erosi ahalko da. Alde batetik, gure web gunea propioa izango dugu eta honen bidez produktua erosi daiteke. Hori dela eta, web gune bat garatuko dugu **Pop Art studio** enpresarekin.



Beste aldetik, **Amazon** enpresarekin harremanetan egongo gara gure produktua bertan saldu ahal izateko, bezero gehiago lortzeko helburuarekin.

Baita ere, publizitatea garatu beharko dugu produktu berriarentzat. Pastika kaxaren iragarkiak irratian agertuko dira eta honen ondorioz, **Euskal Irratiarekin** hitz egingo dugu 15 eguneko iragarkia jartzeko asmoarekin.



Pastilla kaxa elektronikoaren **patentea** lortuko dugu, eta horretarako Estatuari ordaindu beharko diogu.



Gure enpresan, **arrisku garbigarren** prebentziorako Asepeyo enpresarekin harremanetan jarriko gara.